

# EUSKERAZALEAK

Euskerea ikasteko gogoa biztu da aspaldion erdeldunen artean eta oso gauza pozgarria da ori. Baiña zelan ikasi.

Ez da gauza erreza. Izkuntza bat, edozein, ondo ikastea, oso gatxa da, baiña lortzen da eta askok lortu dau.

Izkuntzak irakasten diarduenak, umeak daukan bidea dala onena esaten dabe. Zein da bide ori?

Lenengo entzun eta asko entzun. Umeak illeak egiten ditu entzuten berba bat be esan barik. Orixe da lenengo egin bear dana: Euskeraz berba egiten dabenai entzun eta asko entzun. Bigarren oinkadea, entzuna ulertzea da eta orretarako be ainbat illebate bear dira.

Asko itandu, barriro esan erazo, entzuten dan guztia (etxean, errian, irratian, abestietan...) ulertu, ezer be ez itzi ulertu barik.

Eta irugarrenez, berba egin, eta berba egin norberaren barruan lenengo. Erderaz bere pentsamentuak egiten dituanak ez dau iñoz euskeraz, ondo egingo. Euskerea ikasteko, euskeraz pentsetan alegiña egin bear da: Esaldiak egin, sarritan esan, norberak entzuteko eran esan, entzuten dana sarritan esan...

Alkar-izketak, asikeran errezenak, sarritan egin, geroago ta geiago euskerea erabili.

Ori lortzen danean, geiena eginda dago, baiña izkuntza bat ikastea ez da iñoz be amaitzen, beti geratzen da zer-ikasi, batez be txikitako berbetea ez danean.

Gero libuiuetara jo bear da eta emen be iru mailla: irakurri, irakurria ulertu eta idatzi. Izkuntza idatzia agoztua baiño errezagoa da, baiño lenengo agozkoa ikasi bear da beti.

A! Eta bearren dan gauzea: eroapen, pazientzi aundia. Itzi illeai ta urteai doazela eta beti ekin eta ekin.